


SAN MIGELAK 2010

Aretxabaletako jaiak



GOIENKARIA

ARETXA AUTOAK

Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:

**San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizue!**



Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68

www.autosaretxa.com

Kilima
ume eta haurdunendako arropak



Ilargi plaza 6 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 34 96



Kilimak, San Migel alaiak opa dizue.



MAKAI°
Koop. E. Mugatua

BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili jaietan!

SAN MIGELAK

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 24

18:00 Erretiratuei eskainitako LUNCHA eta DANTZALDIA, Basotxon.
18:00 'OILASKOETXEA' delako kale antzerkia.
18:00-00:00 Udaletxe zaharrear gazte ekimenaren TURBOTABERNA eta TONBOLA.
19:00 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIEKIN batera BURUHANDIAK irtengo dira kalejiran.
22:30 Herriko SCAM, CRISIS, NEALTA FOLA eta MATXINBRADA musika taldeek KONTZERTUA egingo dute Arlutzeko kantuan.



TRIKITILARIAK HERRIA GIROTZEN.

Zapatua, 25

10:00 DIANA, herriko txistulariekin.
Goiz osoan zehar, Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA Pagaldai tabernan.
Egun osoan zehar, udaletxe zaharrear TURBOTABERNA.
10:00-14:00 ARTISAU FERIA eta XVI. AZOKA BIOLOGIKOA izango dira Durana kalean.
11:30 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIEK kaleak animatuko dituzte euren musikarekin.
12:45 TXALAPARTA Durana kalean.
13:00 ZANPANTZARRAK Durana kalean.
14:30 HERRI BAZKARIA Herriko Plazan.
17:00 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIAK kaleetan barrena.
19:00 LARRIN-DANTZA egingo dute Durana kalean.
19:30 BERTSOLARIEN emanaldia Herriko Plazan: SEBASTIAN LIZASO, IGOR ELORTZA, JON MAIA, IRATXE IBARRA eta ESTITXU AROTZENA.
22:30 DANTZARI MUSIKA TALDEAK emanaldia egingo du Herriko Plazan.
23:30 BOLO TXAPELKETA jokatu da, honako sariekin:
 1. saria: 100 euro, garaikurra eta txapela.
 2. saria: 70 euro.
 3. saria: 50 euro.
 4. saria: 30 euro.
00:00-03:00 Borondatezko ALKOHOL PROBA Durana kalean.

Domeka, 26

11:00 DIANA, Basauriko Haizedoinuak taldearekin.
13:00 HERRI KIROLAK Herriko Plazan.
 1. atala: aizkolariak (Ernesto Ezpeleta Bihurri, Hodei Ezpeleta, Jesus Gisasola Zelai II.a, Ioritz Gisasola Zelai III.a); Iparraldeko jokoak (Karlos Aretxabaleta); harri-jasotzailea (Joseba Ostolatza).
 2. atala: norgehiagoka
 3. atala: motozerra erabiliz irudi bat egitea.

16:00 XVIII. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA Herriko Plazan. Izenematea 15:15etik 15:45era, 20 eurotan.
16:00 Arlutz Xake Elkartearen eskutik III. SAN MIGEL SUB 16 XAKE TXAPELKETA Herriko Plazan.
19:00 San Migeletako kontzertua: ARETXABALETA ABESBATZAREN emanaldia Herriko Plazan. P. Jose Arrue konpositore aretxabaletarra hil zela 50 bete direnean omenaldia jasoko du. Hortaz gain, euskal kantutegiko abesti ezagun gehiago eta mundu mailako doinuak eskainiko dituzte.



UMEEK ERE BERAIEK LEKUA DUTE HERRIKO JAIETAN.

AUTOMAKILLATZE IKASTAROA

- Taldeka edo banaka.
- Ikasi zure ezaugarri hoberenak nabarmentzen.

MILES MAN DIODO LASERRA

- Presta zaitez datorren udaberri-udarako.
- 4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du

IRRATI FREKUENTZIA ETA LIPO KABITAZIOA

- Kirugarik gabeko liftinga eta tinkatzea.
- Uda ondoren behar duzuen.
- Aurpegiko orbanen aurkako tratamendua
- Zimurren aurkako tratamendua.

Anima zaitetze!

*Presta zaitez datorren udaberri-udarako.
4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du*

Gemes
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA

AZOKA

Artisau azoka eta produktu ekologikoak barra-barra

Zapatuko azokan 51 postu inguru egongo dira jarrita Herriko plazaren eta Durana kalearen artean banatuta

LANDER MUÑAGORRI

Zeramika, larrua, beira edo bitxiak alde batetik, eta barazkiak, ardoa, gazta edo ogia bestetik, zernahi ikusi, erosi eta dastatzeko aukera egongo da zapatuko azokan.

Aretxabaletako jaietako egun garrantzitsuenetarikoa da bihar, zapatua. Hilaren 25ean azokak dauka zeresan nagusia, eta aurten ere Herriko plaza eta Durana kalearen artean banatuko dira saltzaileen postu guztiak.

Azokako postuetan produktu ezberdinak jarriko dituzte salgai. Alde batetik artisauak egongo dira; hauen artean, topatu ahal izango da ezti, turroia, otarrak, zeramika, larrua, bitxiak, oihalak... Denetara 30 postu jarriko dituzte Herriko plaza eta Durana kalean zehar.

Azoka ekologikoari dagokionez, 21 postuk dau-

kate izena emanda, eta bertan barazkiak, gazta, ogia, haragia, mermelada, olio edo ardoa erosi eta dastatu ahal izango dira. Horretaz gain, pintxo ekologikoak ere banatuko dituzte. Postu horiek guztiak Durana kalean jarriko dituzte.

Azokak zapatu goizari kolorea eta giroa emango dio, baita horiez gainera egongo diren talogileek ere. Baina egunari doinua jartzeko ardura txalapartariak eta bertsolariak hartuko dute arratsalde partean. Bertan izango dira kantuan Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Jon Maia, Iratxe Ibarra eta Estitxu Arozena.

Txalapartariak izango dira goizean zehar, eta arratsaldean, berriz, bertso saioa



Baserritarren eta artisauen produktuak bezeroentzako eskura egongo dira.

JOSETXO ARANTZABAL



Fino

Gizonezkoen
ile apaindegia

Ilearen tratamenduetan espezialistak

Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666 26 48 86

*Ondo pasa
San Migeletan*



- Masaje terapeutikoa eta kirol masajea
- Akupuntura
- Presoterapia
- Hidroterapia SPA
- Osteopatia
- Erreabilitazioa
- Pancafit Metodoa
- Tecarterapia

Zure
Osasuna
gure ardura da



Belorrieta 6-7 • 20550
Tel.: 943 79 95 64

BASABE jatetxea

Basabe poligonoa **Aretxabaleta**
Tel.: 943 77 31 19

- **Eguneko menua • Karta**
- **Plater konbinatuak eta ogitartekoak**

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)

SAN MIGEL ZORIONTSUAK IGARO!



**INSTALAZIOEN
MANTENIMENDU
OSOA**

24
ORDUKO
ZERBITZU
OROKORRA*
* Kontrataturakoa

Proiektuak eta legeztatzea • Diagnosiak eta berritzeak • Gas ikuskatzeak • Iturgintza orokorrean

Energia berriztagarriak eta alternatiboak; proiektu eta zaharberitzeak eta azterketa energetikoak.

Berokuntza • Gasa • Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe Industrialdea B-3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 19 88 / Faxe: 943 79 59 97

www.goiena.net/blogak/urko

ELKARRIZKETA KARMELE UNTZUETA TALOGILEA

"Gazteak pozik ibiltzen dira taloak egiten"

LANDER MUÑAGORRI

Karmele Untzuetak urteak daramatza taloak egiten Loramendi euskara elkar-tearekin. Aurten ere herritarrek egindako taloak dastatuko dira jaietan.

Noiz eta nola hasi zineten Loramendikoak taloak egiten?

1993an hasi ginen San Migel jaiak ospatzeko taloak egiten. Eta zeintzuk? Herriko andreak, baserri-tik lehenik ikasita gentozenak.

Zein helbururekin hasi zineten taloak egiten?

Euskara elkar-tearentzako diru sarrera bat lortzeko asmoarekin. Lortzen dugunari esker urtean zehar hitzaldiak eta ekitaldi ezberdinak antolatzen dira. Diru kopuru polita ateratzen da, gainera.

Taloak egiten dituzue-nean, emakumezkoak

bakarrik ibiltzen zarete?

Orokorrean, bai. Baina mutilak ere animatzen dira batzuetan. Aurten ere nahi duena etor daiteke! Gaur egungo gazteak oso inplikaturik datoz, gainera.

Taloak egiteko ikastaroetan ere parte hartu izan duzu irakasle gisa...

Bai. Euskaltegian eskaini zidaten ea joan

"Taloak garestiak dira direnerako, baina dirua ateratu behar da"

"Testigua emango dut, baina oraindik ez daukat asmorik"

nahi nuen eskolak ematera. Han gazte guztiak pozik eta gustura ibiltzen dira taloak egiten. Eta neu ere gustura joaten naiz!

Testigua emateko asmoarekin, ala?

Oraindik ez, baina niregatik bai, zergatik ez?

Talo on bat egiteak ere bere sekretua izango du...

Printzipalena arto irin ona edukitzea da, izan dadila freskoa. Hori da oinarria. Ondoren, masa egiteko ur beroa behar da. Eta hori landu, ondo landu behar da, sekula ez dadila masa hoztu. Txapa ere garrantzitsua da, hark ere bero egon behar du-eta. Taloak ez du egosi behar, erre baizik. Eta goxoa ateratu dadin, puztu dadin garrantzitsua da.

Hala ere, taloak direnerako ez dira garesti samarrak?

Bai. Baina dirua ateratu behar da eta... Jendeak ere gustura jaten ditu... Taber-



Karmele Untzuetak gustura ibiltzen da taloak egiten.

LANDER MUÑAGORRI

nariak ere kobratzen dute euren... eta gu haien tamainara iritsi gara apur bat.

Eta taloak egin ondoren herri bazkarira. Inda-

rik gelditzen zaizue ordurako?

Bai, elegante pasatzen dugu! Taloekin amaituta herri bazkarira joaten gara. Bazkalostean ekin-

tzarik badago, parte hartzen dugu. Urte baten trontzan aritu ginen, beste baten asto gainean... eta aurten beste ezer bada animatuko gara, noski!

Comercial errekabarren

• Mari Carmen Oinetakoak

689 73 39 17

• Errekabarren Frutadenda

943 79 96 43

• Irudi Ile apaindegia

943 79 80 90

• Leintz-Rossi Mertzzeria

943 79 78 63

Errekabarren kalean gaude!!

Ondo ibili jaietan!!!

San Migelak Aretxabaletan


ARETXABALETAKO SAN MIGELEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N

Astelehena, Irailaren 27an, 19:45, 21:15 eta 23:30etan.

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!






GUREA

Gora San Migelak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



**Euskal kultura,
euskal jaia,
euskal ohiturak...
geure geureak!**

Gora San Migelak!

Gora Aretxabaleta!

Gora Euskal Herria!

aretxabaletako



aralar

HERRI BAZKARIA

Jai giro apartan egoteko, herri bazkaria aurten ere

Herriko Plaza

**Zapatua,
14:30ean**

Herri bazkaria egingo da. Giro apartaz gozatzeko aukera ezin hobea.

Presoen Lagunak taldeak antolatu izan duen bazkaria aurten 25. urteurrena duen Urbaltz elkartearen esku egongo da

LANDER MUÑAGORRI

500 lagun elkartu ohi dira urtero Aretxabaletako pilotalekuan egiten den herri bazkarian. Aurten ere giro onik ez da falta izango bertan.

San Migel jaien barruan, hilaren 25erako, zapatua, herri bazkaria antolatu da, urteroko legez. Aurtengoan Urbaltz elkarte gastronomikoaren esku egongo da antolakuntza, eta era horretan elkartearen 25. urteurrena ospatzeko aukera edukiko dute. Azken urteetan Presoen Lagunek antolatu izan duten bazkaria *Independentziarantz* lelopean egingo da.



Aretxabaletako herri bazkaria jendetsua izango da.

GOIENKARIA

Antolatzaile ezberdinekin, aldaketak ere egongo dira. Orain arte eskaintzen zen menua aldatu egingo da; era horretan, bertara joaten direnek patatak errioxar erara, oilasko erreka eta tiramisua izango dituzte. Bazkaria 14:30ean izango da. Antolatzaileek 500 pertsonarentzako lekua prestatu dute eta txartelak Gurea, Orli eta Urbaltz tabernetan eskuratu ahal izango dira 17 eurotan; txartelok erosteko azken eguna gaur izango da.

Bazkalostean, trikitilariak alaituko dute giroa eta kantu-paperekin lagun-tzarekin herritarrek kantuan jartzeko ardura hartuko dute.

Beste urte batez ere, giro ona eta jai giroa nagusituko da Aretxabaletako herri bazkarian.

30
Eguzkigraf,
Koop. Elk.
1979-2009
urteurrena

Ondo pasa
San Migelak!!

EGUZZKIGRAF
KOOP. E.


EGUZZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4,
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

zure
zerbitzura



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABAETA




ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABAETA

FAGOR
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABAETA

expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE
1950•2010

60 urte

**HERRIKO PLAZAKO DENDARI
ETA TABERNARIEN PARTEZ...**



**San Migel zoriontsuak
opa dizuegu!**



ILE APAINDEGIA
Tel.: 943 79 83 64



aretxabaeta
Tel.: 943 09 33

BAR ARTANO

Tel.: 943 53 39 87



Tel.: 943 10 97 98



Tel.: 943 03 66 61

MARIA JESUS
ARGAZHI PROFESIONALA
www.mjargazki.com

Tel.: 943 77 12 55 - 656 73 24 63

HERRI KIROLAK

Herri kirolen askotariko aukera domekarako

Herriko plaza

**Domeka,
13:00etan**Aizkolariak, harri-
jasotzaileak eta herri
kirol eskaintza
gehiago

Harri-jasotzaileak, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak egongo dira eta motozerrarekin egurrezko irudiak egingo dituzte

LANDER MUÑAGORRI

Zer izango lirateke herriko jaiak herri kirol erakustaldirik gabe? Aurten ere eskaintza zabal eta oparoa ekarri dute jaietako domekarako.

Aretxabaletako jaietako domekan, hilaren 26an, herri kirolek edukiko dute presentzia nabarmena. Herriko Plazan izango da hitzordua, 13:00etan hasita, eta Maider Osa ibiliko da aurkezle. Herri kirol probak hiru atal ezberdinetan banatu dira: harri-jasotze, aizkora eta Iparraldeko jokoen artean.

Lehenengo sailean, aizkolariak egongo dira: abiadura proba, zutika

koa, kolpekakoa eta esku bakarrekoa izango dituzte. Horretarako, bertan izango dira Ernesto Ezpeleta *Bihurri*, Hodei Ezpeleta, Jesus Gisasola *Zelai II.a* eta Ioritz Gisasola *Zelai III.a*. Karlos Aretxabaletak, berriz, Iparraldeko jokoak egingo ditu; horien artean, lasto eta ingude jasotzea eta lasto jaurtiketa. Bestetik, Joseba Ostolatza harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du hainbat harrirekin.


Bigarren atalean, bi hirukoteren arteko norgehiagoka egingo da. Lehia aizkoran, harri-jasotzen eta korrikari egingo dute parte-hartzaileak.

Azkenengo atalean, alor artistikoagoa landuko da. Izan ere, motozerra erabiliz egurrezko irudi bat egingo dute.



Aizkolari erakustaldia izango da Herriko plazan, besteak beste.

GOIENKARIA



**EUSKAL HERRIARENTZAT
DATOR GARAI BERRIA,
ABERTZALEOK BAT EGIN
ETA LORTZEKO BAKIA.**

ONDO PASA SANMIGELAK!!

ARETXABALETAKO 

ANTZERKIA

Oilaskoarekin ikuskizuna eta antzerkia egiteko abilezia

'Oilaskoetxea' eskaintzera datoz Malas Compañias-ekoak

LANDER MUÑAGORRI

2006an sortu zen Malas Compañias antzerki taldearen azken lana da *Oilaskoetxea*. Furgonetan alde batetik bestera doazela, Aretxabale-tan geldituko dira

Oilaskoa erarik xelebreenean dastatu ahal izango da egubakoitzean Aretxabale-tako plazan.

Izan ere, furgonetan iritsiko da bertara Malas Compañias antzerki-zirku

taldearen *Oilaskoetxea* antzezlana. Bertan etxetik alde egin nahi duten gaur egungo bi baserritar gazteren istorioa kontatzen dute; "bi artabururen istorioa", Mikel Picaza taldekidearen hitzetan. Etxetik alde egiteko, oilasko erre-

tegi mugikor bat jarriko dute martxan, furgoneta euren garraio-bide bihurtuko dela.

Pixkanaka leporaino beteta doan furgoneta husten joango dira, horietako gauza bakoitzarekin malabarismo eta ikuskizun ezberdinak eskainiko dituzte. "Erretegiko gauzak, malabarismoak eta oilasko ere erabiliko dugu emanaldian ikuskizuna eskaintzeko", azaltzen du Picazak.

Maiatzean aurkeztu zen ikuskizun hau, eta dagoeneko hogeita hamar emanaldi inguru egin



Herriko plaza
**Egubakoitza, 24
18:00etan**
Malas Compañias antzerki taldearen 'Oilaskoetxea' antzezlana

'Oilaskoetxea'-ko kideek ikuskizuna bermatuko dute.

MALAS COMPAÑIAS

Furgonetako gauza ezberdinekin malabarismoa egingo dute

dituzte, gehienak ere Euskal Herrian. Oilaskoetxe-atarren negozioak, hala ere, kanpoko bezeroak ere bilatu ditu, euren furgone-

tak Zaragozan egin baitzuen geldialdia.

Zirku teknika eta klown-a nahasten dituen antzeppenak arrakasta

azpimarragarria eduki du, Malas Compañias taldeko Picazak adierazten digunez. Aretxabale-tara ere asmo horrekin datoz.



Telleria 19 B-0-2 B-0-3 · Bergara
T: 943 76 47 19 · 610 88 40 20

AROTZ LANETAN BEHAR DUZUN GUZTIA

**Ateak · Leihoak · Horma-armairuak
Tarimak · Parket flotatzaileak · Sukaldeak**



MUSIKA

Munduko eta euskal doinuez gozatzeko aukera

Aretxabaleta Abesbatzak irailaren 26an eskainiko du urteroko kontzertua Herriko Plazan, 19:00etan

Herriko plaza

**Domekan,
19:00etan**

Aretxabaleta
Abesbatzak urteroko
jaietako kontzertua
eskainiko du

LANDER MUÑAGORRI

Jose Arrue konposatzaile aretxabaletarra hil zela 50 urte bete dira aurten eta aitzakia horrekin omenaldia egingo dio Aretxabaleta Abesbatzak; kontzertua haren kantu batekin hasiko da. Doinu gehiago ere izango dira.

Aretxabaleta Abesbatzak urtero eskaintzen du kontzertu bereziren bat San Migel jaietako egitarauaren barruan. Bada, aurten ere askotariko doinu eta hizkuntzatan kantatuko dute aretxabaletarrak. Hitzordua etzi, domeka izango da, 19:00etan, Herriko Plazan, eguraldia



Abesbatzak iazko San Migeletan eskaini zuen kontzertuko unea.

GOIENKARIA

lagun badute; eta bestela, Iturriberrri frontoian izango da.

Kontzertuak bi atal bereizi izango ditu: lehe-

nengo zatian euskal kantutegiari errepassoa egingo zaio. Jose Arrue konposatzaile aretxabaletarra hil zela 50 urte bete

dira, eta omenaldia egingo diote haren kantu bat interpretatuta. Kontzertuan zehar, hala ere, euskal kantu ezagun gehiago

Aretxabaleta Abesbatzaren San Migeletako kontzertua

Poema Bermeo / Jose Arrue

Kantuz / Alexander Les Bordes

Iruten ari nuzu / Alexander Les Bordes

Gure bide galduak / Benito Lertxundi

Baldorba / Benito Lertxundi

Lau teilatu / Itoiz

Habanera / Xabier Lete

Xalbadorren heriotzean / Xabier Lete

La misión / Ennio Morricone

Las mañanitas / Mexikar herrikoia

La Golondrina / Narciso Serradell

Plegaria guadalupana / Miguel Aceves Mejía

La vie en rose / Eric Piaf

Santa Lucia / Teodoro Cottrau

Maruzella / Renato Carosone

Funiculi funicula / Luigi Denza

eta munduko doinuek abestuko dituzte.


Kontzertu horretan jende asko batu ohi denez, abesbatzak ere jendearen-

gana inguratu nahi izan du abesti ezagunak interpretatuz. Hala adierazi digu Anjel Barandiaran abesbatzako zuzendaria.

J.J ITURGIINTZA

IRURE

- URA
- GASA
- KALEFAKZIOA
- ERREFORMAK




Tel / Faxes: 943 79 31 87
Mitarte 15 - 20550 ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE



Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



ROCK KONTZERTUA

Herritik eta herriarentzako egingo den jaialdia

San Migel jaietako lehen egunean Scam, Crisis, Nealta Folta eta Matxinbrada herriko taldeek eskainiko dute kontzertua

LANDER MUÑAGORRI

Hardcore eta punk doinuak bustiko dira aretxabaletarrak San Migel jaietako lehen egunean. Herriko lau talderen emankizuna egingo da.

Jaietako lehen egunean herritarrak gogotsu egoten dira herriko jaiak noiz hasiko zain, eta hori ez da arraroa. Hori hala izanda, are gogotsuago egingo dira Scam, Crisis, Nealta Folta eta Matxinbrada taldeetako partaideak. Izan ere, Aretxabaletako lau talde horiek euren herriko jaietan jotzeko aukera izango dute Arlutzeko kantxan. Familiarteko, ezagun eta lagunaren artean joko dute

kontzertua. 22:30ean hasiko da emanaldia.

Scamek eskainiko duen hardcore melodikotik punk soinueta igaroko dira emanaldiak. Scameko mutilak, gainera, denbora luzez dabilta abesti propioak sortzen, Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko batez ere. Mikel taldekideak adierazi duenez: "Gogo handia daukagu herritarren aurrean jotzeko".

Gogotsu igoko dira oholtza gainera Nealta Folakoak ere. Urtebetez geldirik egon dira, baxujotzailea munduan zehar bidaiatzen ibili da-eta. Abuztuaren itzuli zen, eta itzulerako emanaldia herriko jaietan egingo dute. Hasiara batean kontzertu laburra izango dela adierazi digu Karlote tal-



Scam denbora luzez dabil abesti berriak sortzen.

GOIENKARIA

dekideak: "Ez dugu entsetzeko apenas denborarik izan; beraz, kontzertu laburra izango da". Herriko jaietan itzulerako kontzertua eskaintzea kasualitatez jo du.

Crisis eta Matxinbrada ere taularatuko dira euren punk doinuak ikusleei helarazterako. "Jendea mugiaraztea" da haien helburua, Ander taldekidearen hitzetan.



Matxinbradaren punk doinuak entzungai izango dira.

GOIENKARIA



Basabe industrialdea 4 - EO - 11

TEL.: 943 79 01 51 FAXA 943 77 15 03 MUG 608 77 28 67

www.construlansl.com

Ondo pasa jaiak!



Eraikuntzak ●

Zaharberitzeak ●

Igogailuak ●

Entitate publikoendako lanak ●

Gremioen koordinazioia.... ●

construlan@euskalnet.net



ARGAZKIAK: MARIA JESUS

Atxabalta, **sasi** guztien gainetik



San Migelak **2010**

...eta IRAILAren 26a, Igandean FORONDAAn 12:00etan **ALDERDI EGUNA 2010**



ARETXABALETako URI ERAKUNDEA
Durana kalea 23, behea
eajaretxab@euskalnet.net
943 795 743



Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA

20/10eko SAN MIGELAK

***Ondo pasau
San Migel jaixak!***

